

EGINBIDEA: Jasota uzteko 2021eko urtarrilaren 22ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (15 zk.) argitaratu zela Ordenantza honen behin betiko onespena eta testu osoa.

Bera, 2021-01-26.

SINADURA DIGITALA.

IDAZKARIA,

Miguel J. Belarra Tellechea.

BERAKO BIDE PUBLIKOETAN PASABIDEAREN LIZENTZIAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

LEHENENGO KAPITULUA

Pasabidearen lizentziak

1. artikulua. Kontzeptua.

Edozein higiezinetara ibilgailua sartzeko espaloiak edo jabetza- eta erabilera-publikoko bestelako ondasunak gurutzatzea beharrezkoa denean, edo ondasun horiekiko herritar guztiei dagokien erabilera pribatizatzea edo murriztapen berezia eragiten denean, edo sarbide horren lekuan beste ibilgailu batek gelditzea edo geldialdia egitea saihesten denean, sarbide hori soilik Ordenantza honetan ezarritakoari jarraiki eta bertan adierazten diren mugen arabera egin ahal izango da.

2. artikulua. Lizentzia eskuratu beharra. Titularrak.

1. Pertsona edo entitate publiko eta pribatu guztiek behar dute lizentzia, eta, horretarako, dagozkion tasak ordainduko dituzte. Horrez gain, espedientean egiaztatu behar da egunean dituztela Berako Udalarekiko tributu betebeharrak.

2. Finkaren jabea, negozio-lokalaren errentaria edo hura erabili edo gozatzeko eskubide baten titularra izan daitezke pasabidearen lizentzien eskatzaileak eta titularrak, ez beste inor.

Jabea eskatzailea ez bada, bere adostasuna agertu beharko da eskaeran.

Pasabidearen lizentziak ekartzen dituen betebeharrak guztien erantzulea haren titularra izanen da, eta, subsidiarioki, finkaren jabea.

3. artikulua. Pasabidearen lizentziak. Gelditu eta aparkatzeko debekua.

Pasabidearen lizentziak ibilgailu guztiei debekua ekarriko die lokalaren sarreraren parean aparkatzeko, eta baimena emanen du inguruabar hori seinaleztatzeko.

Pasabidearen lizentziak ezarritako eremuan eta ordutegian debekatuko da ibilgailuak gelditu eta aparkatzea.

4. artikulua. Pasabidearen lizentzia motak.

Pasabidearen lizentziak 24 ordurako emanen dira garajeetan eta etxabe/lokal pribatuen sarbideetan. Ibilgailuei emanen zaie aukera pasatzeko, eta debekatuta izanen dute galtzadan eta pasabidearen parean gelditu eta aparkatzea.

Oro har, ez da ordutegi mugatuko pasabidearen lizentziarik emango.

5. artikulua. Pasabidearen lizentzia ematea justifikatzen duten egoerak.

Pasabide iraunkorreko lizentzia eman daiteke etxebizitza, aparkaleku eta ibilgailuen gordelekuetarako, eraikinaren beheko solairuko lokala garaje izan daitekeenean, ibilgailuak eta nekazaritzako makinak edo lanabes osagarriak gordetzeko, titularrak nekazaritzako jarduerak egitea kasu.

6. artikulua. Lizentzia eskuratzeko aurkeztu beharreko agiriak.

Honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio pasabidearen lizentziaren eskabideari:

1. Garajea erabiltzea baimentzen duen udal lizentzia, hirigintzako araudi aplikagarriaren arabera (lehenengoz okupatzeko lizentzia edo erabilera aldatzeko lizentzia).

2. Lokalaren kokapen planoak, eraikinaren zenbakia, lokalaren atea eta abarrak behar bezala identifikatuak. Pasabidearen baldintzak ere zehaztuko ditu planoak, zabalera eta ukitzen dituen zuhaitzak, hiri-altzariak eta bide publikoko oztopoak adierazita.

3. Lizentziaren xedeko lokalaren katastro-erreferentzia. Salbuespenez, horren ordez lokalaren plano ulerterraz eta zehatz bat aurkez daiteke, azalera (metro koadrotan), sarbideak eta haien ezaugarriak adierazita. Udaleko zerbitzu teknikoek egiaztatzen ahalko dituzte datuak.

4. Ibilgailuak eta/edo nekazaritzako makinak utzi edo gordetzeko establezimenduen kasuan:

a) Garaje komunitarioetarako: jabeen erkidegoaren frogagiria (erkidegoaren IFKren fotokopia).

b) Garajeak izan daitezkeen lokaletarako, eta ibilgailuak eta nekazaritzako makinak edo lanabes osagarriak gordetzen dituzten garajeetarako: lokalean gordeko diren ibilgailu eta makinaren inskripzioa (dagokien erregistrokoa) frogatzen duten agiriak.

Ibilgailuak edo garajea erabiltzen duten jabeak aldatzen badira, lehenbailehen jakinaraziko zaio Udalari, pasabidearen lizentziaren espedientean jaso dadin.

5. Lokalaren jabearen adostasuna, eskatzailea ez bada, eta erantzukizun subsidiarioaren onarpena ordenantza honetan ezarritako betebeharrei dagokienez.

Toki Ogasunei buruzko Legean ezarritakoarekin bat, lokalaren jabea zergadunaren ordezkoa izanen da aprobetxamendu bereziaren tasan. Aprobetxamendua ibilgailu motordunak espaloietan edo jabari publikoko bestelako ondasunetan barna pasatzeari dagokio.

6. Espaloia eta zintarria egokitu behar baldin badira eraikinera edo lokalera sartzeko, obra lizentziaren eskaera eta EIOZ-ren ordainagiria erantsi beharko zaizkio pasabidearen lizentziaren eskabideari.

7. artikulua. Pasabidearen lizentzia emateko prozedura.

1. Pasabidearen lizentziaren eskatzaileak aurkeztutako eskabidea eta agiriak jaso ondoren, Berako Udalak tramitatu eta bideratuko du espedientea, eta eskatzaileari galdatuko dio akatsak zuzen ditzala edo falta diren agiriak aurkez ditzala hamar eguneko epean.

2. Agiri administratibo hauek ofizioz erantsiko zaizkio espedienteari:

- Garajearen edo garaje izan daitekeen lokalaren katastro-ziurtagiri deskriptibo eta grafikoa.

- Udaleko Kontu-hartzaitzaren edo Diru-bilketa Alorraren txostena, egiaztatzeko eskatzaileak udal honekiko tributu betebeharrak egunean dituela.

- Udaleko zerbitzu teknikoen neurketa txostena, hala behar denean.

- Egokitzen jotzen diren txosten osagarriak.

3. Agiri guztiak aurkeztu eta espedientea tramitatu ondoren, proposamen arrazoitua igorriko zaio espedientea ebatzi behar duen organoari.

8. artikulua. Lizentzia ematea.

1. Alkatetzak emanen edo ukatuko du baimena, Udaleko zerbitzu teknikoek txostenak egin ondoren.

Pasabidea egokitzeko obren baimena ere ebatziko da, hura eskatu bada; baimena ematekotan, eraikuntzen gaineko zergaren ordainketa eskatuko da, baita galtzada eta zintarria lehengoratzeko fidantza ere.

2. Pasabidearen lizentziak diskrezionalki baimenduko dira, ordenantza honetan ezarritako irizpideen arabera, jabetza eskubidea salbu dela eta hirugarrenak kaltetu gabe.

3. Pasabidearen lizentziek ez dute eskubide subjektiborik sortzen. Udalak edozein unetan eskatzen ahalko dio titularrari pasabidea deuseztatzeko, eta azken honen kontura izanen da galtzada eta zintarria lehengoratzea, ordenantza honetan araututako baldintzetan.

4. Oro har, kasu hauetan ez da pasabidearen lizentziarik emanen:

4.1. Pasabideak lorategiak edo zuhaitziak okupatuko balitu, edo, hurbiltasunagatik, haien garapen edo kontserbazio normala oztopatuko balu.

4.2. Eraikinen kantoï edo alaketan, urbanizazioaren ezaugarriengatik trafikoaren edo oinezkoen segurtasuna oztopatuko edo arriskuan jarriko balitz.

4.3. Bide publikoaren zabaleragatik edo beste ezaugarri batzuegatik aurrerantz biratzeko maniobra egin beharko balitz eraikinera sartzeko, edo beste ibilgailuen zirkulazioa oztopatuko balitz, edo pasabidetik pasatuko liratekeen ibilgailuen pisu edo ezaugarriengatik espaloia edo galtzada kaltetzeko arriskua sortuko balitz.

4.4. Espaloia zabaleragatik, oinezkoen zirkulazioaren intentsitateagatik edo pasabidearen lizentzien kopuru handiagatik zirkulazio hori edo beste erabilera orokor bat arriskutsu bihurtuko edo nabarmenki murriztuko balitz.

4.5. Interes kultureko ondasun, hiri-altzari, semaforo, bide-seinale edo trafiko handiko eremu batetik hurbil egoteagatik hura kaltetuko edo mugatuko balitz.

Lizentzia ukatzeko arrazoi diren elementuak lekualdatu edo ezeztatzen ahal badira, Udalak lizentzia eman dezake baldin eta interesdunek lekualdaketa edo ezeztapenaren gastuak pagatzen baditu.

9. artikulua. Mugak.

Lizentzia bakar bat ematen ahalko da lokal bakoitzeko, lokala izanik espazio-unitate fisiko bat, besteengandik guztiz eta modu iraunkorrean bereizia fabrika-obren bidez.

Titular batek ondoz ondoko bi lokal baditu eta biek sarbidea konpartitzen ahal badute, soilik lokal baterako emanen da pasabidearen lizentzia.

10. artikulua. Sarbidea.

Interesdunak eskatuko du pasabidearen lizentziaren xedeko lokal edo gunearen sarbidearen zabalera, betiere sartzeko atearekiko lerro perpendikularra barne hartuta eta 5 metro gainditu gabe. Salbuespenez, behar bezala arrazoituta kasuetan, Udalak zabalera handiagoa edo txikiagoa baimentzen ahalko du.

11. artikulua. Seinaleztapena.

1. Pasabidea seinaleztatzeke, debeku plaka iraunkor bat jarriko da, ordenantza honen I. eranskinetako ereduari jarraikiz, sarbidearen zentrotik ikusgai eta lurretik gutxienez 1,50 metrora.

2. Kasu batzuetan, ikusgarriago egiteko, plakaren kopia egingen da titularrak bi plaka edo disko jar ditzan.

3. Udalak emanen du plaka, baina titularraren kontura geldituko dira hura bere tokian paratu, kontserbatu eta mantentzeko lanak, eta Udalari itzuli beharko zaio pasabidearen lizentziaren baja gertatu edo hura baliogabetuz gero.

4. Plakek Udalaren eredu normalizatuari jarraitu beharko diote, eta lizentzia zenbakia jaso beharko dute, baita Udalaren ustez pasabidea identifikatzeko balio duten datu guztiak ere.

5. Egokia denean, lizentzia emateko ebazpenean berariaz ezarritakoaren arabera, pasabideak seinale horizontala izanen du. Marra hori jarraitua izanen da, 15 zentimetroko

zabalerakoa eta baimendutako eremuaren luzerakoa, material irristagaitzez egina galtzadan, beheragunean edo espaloia, plazaren edo bide publikoaren zintarrian.

Titularrari dagokio seinale horizontala egoera onean kontserbatzea.

12. artikulua. Espaloia eta zintarria beheratzeko obrak.

1. Pasabidearen lizentziaren xedeko eraikin edo lokalaren sarbidean espaloia eta bide publikoaren zintarria egokitu behar badira, Udalak ordenantza honen 10. artikuluan xedatutakoarekin bat zehazten duen azaleran eginen da obra, erabiliko diren ibilgailuen ezaugarrien arabera, lokal edo eraikinaren sarbidearen eta haren pareko espaloia arteko ebakidura lerroa gainditu gabe eta sestra ofiziala aldatu gabe.

2. Udalak izendatzen dituen profesional eskudunek eginen dituzte obrak, pasabidearen titularraren kargura.

3. Obra egin eta bide publikoaren zatia seinaleztatu ondoren, Udaleko zerbitzu teknikoek ikuskatuko dute.

13. artikulua. Behin-behineko instalazioak.

Debeku da ibilgailuak bide publikotik eraikinetara sartzea eta eraikinetatik bide publikora ateratzea behin-behineko edo aldi baterako elementu mugikorak, arrapalak, oholak, harea eta abarrak erabiliz, arrazoi justifikatuengatik baimen berezia ematen denean izan ezik.

14. artikulua. Debeku orokorrak.

Espresuki debekaturik daude honako hauek:

1. Lizentziaren titularrak pasabidearen lizentziaren seinaleak eta bereizgarriak behar bezala (aurreikusitakoaren arabera) ez mantentzea.

2. Pintura, errotulu, seinale edo adierazpen grafikoak, baldin eta, pasabidearen lizentziarekin bat etorri gabe, lizentziak aparkatzeko ezartzen dituen mugen gainean oker egitera bultzatzen badute.

3. Edozein ibilgailu uztea, Ibilgailuei buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren II. eranskinaren arabera.

4. Pasabidearen lizentziaren titularrek konpontzen ari diren edo merkataritzako salmentarako diren ibilgailuak uztea.

15. artikulua. Indarraldia.

1. Pasabidearen lizentziak urtebeterako baimenak dira, eta abenduaren 31n bukatzen da indarraldia urtero, baita lehenbiziko urtean ere. Urte horretan hainbanatzen da tasa, bere ordenantza fiskalaren arabera.

2. Hala ere, urtero luzatuko da lizentzia, ezer egin gabe, baldin eta titularrak pasabidearen lizentzia amaitzeko asmoa adierazten ez badu, Udalak interes publikoarengatik indargabetzen ez badu eta Udalak aurreikusitako arrazoiengatik baliogabetzen ez badu.

a) Titularrak dagokion tasa ordaindu beharko du legezko epeen barruan. Administrazioak emandako ordainagiriak frogatuko du lizentzia indarrean dela.

b) Tasa borondatezko bilketaren epean ordaintzen ez bada, ulertuko da titularrak lizentziari uko egiten diola isilbidez. Kasu horretan, segidan, titularrek isilbidez lizentziei uko egiteagatik (tasa ez pagatzeagatik) indarraldia galdu duten pasabideen zerrenda eginen du Zerga Kudeaketa Zerbitzuak, eta agindua igorriko zaie Udaleko zerbitzuei pasabidearen lizentzien plakak kentzeko.

Aurrekoa gorabehera, titularrak isilbidezko ukoa errebokatzen ahalko du, zorra eta lizentzia berriz indarrean jartzeko tasa pagatuta, ordenantza fiskal indardunaren arabera.

3. Nolanahi ere, eta aurreko apartatuan xedatutakoa galarazi gabe, pasabidearen lizentzia deuseztatu ondoren (titularrak berariaz edo isilbidez –tasa ez ordaintzeagatik– uko eginda edo Udalak ofizioz), 19. artikuluan ezarritakoarekin bat, titularrak plaka itzuli beharko du. Udalak lehengoratuko ditu espaloia eta zintarria, pasabidearen titularraren kargura.

16. artikulua. Pasabidearen lizentzien aldaketak.

Pasabidearen lizentzien titularrek baimena eskatuko diote udal administrazioari pasabidean aldaketak egiteko, eta haren kontura izanen dira gastuak.

17. artikulua. Handitzea eta lekualdatzea.

1. Pasabidea handitu edo lekualdatzeko eta titulartasuna aldatzeko, lizentzia berria eskuratu behar da; horretarako, pasabidearen lizentzia baimentzeko eskatzen diren tramite eta baldintza guztiak bete behar dira.

2. Lizentziaren indarraldian lokalaren jabetza eskualdatzen bada edo errentamenduaren titularra edo lokala erabiltzeko gaitzen duen titulua juridikoa aldatzen bada, segidan jakinarazi beharko dio Udalari, egiazta dezan ordenantzan pasabidearen lizentzia emateko eskatzen diren baldintzak mantentzen direla.

3. Pasabidea lekualdatzen denean, deuseztatutako pasabidea kentzeagatik sortutako gastuak ere ordainduko ditu titularrak.

4. Pasabidea kendu dela egiaztatu ondoren, titularrak eskabidea aurkeztuta, lizentzia deuseztatuko da eta, hala badagokio, fidantza itzuliko zaio.

18. artikulua. Udalaren ordezkotekoa betearazpena.

Udalak pasabide bat kentzen ahal du edo, nahitaezkoa izateagatik, pasabide bat jarri, aurretik errekerimendua egin gabe, fidantzaren kargura eta, aski ez bada, pasabidearen titularrari zuzenean ordainaraziz.

19. artikulua. Betebeharrak.

Pasabidearen lizentziaren titularrak honako betebeharrak ditu:

- a) Zoladura, seinale horizontala eta plaka egoera onean kontserbatzea; zoladurak edo erabilera publikoko zintarriak jasaten dituen kalte guztien erantzulea izanena da.
- b) Dagozkion tasak ordaintzea; subsidiarioki, lokalaren jabea izanena da zergadunaren ordeko.
- c) Pasabidea ordenantza honetan xedatutakoarekin bat identifikatu eta seinaleztatzea.
- d) Plaka itzultzea baimenak indarra galtzen duenean.
- e) Agintaritzaren agenteari edo Udaleko zerbitzuei pasabidearen lizentziaren xedeko lokalean sartzen uztea, halakorik eskatzen zaionean.

20. artikulua. Pasabidearen lizentzien amaiera.

1. Pasabidearen lizentzia amaituko da titularrak berariaz edo isilbidez –tasa ez ordaintzeagatik– uko egiten dionean.
2. Pasabidearen lizentzia indargabetzen ahalko da titularrak ordenantza honen hirugarren kapituluan tipifikatutako arau-hauste larri edo oso larri bat egiten duenean.
3. Pasabidearen lizentzia baliogabetuko da hura emateko baldintzak desagertzen direnean, edo beste batzuk sortzen edo ezagutzen direnean, bere garaian lizentzia ukatzea ekarriko zutenak. Orobat, pasabidearen lizentziak baliogabetzen ahalko dira balorazio irizpide berriak ezartzen direnean. Lizentzia baliogabetzeko, espediente administratibo bat tramitatu beharko da, eta interesdunari entzutea emanen zaio.
4. Titularrak berariaz edo isilbidez -tasa ez ordaintzeagatik- uko egiteagatik edo lizentzia indargabetu edo baliogabetzeagatik lizentzia amaitzen denean, titularrak plaka itzuliko eta, behar denean, espaloia lehengoratu beharko du, aurretik ezarritako baldintzetan.

BIGARREN KAPITULUA

Tokia erreserbatzeko lizentzia

21. artikulua. Kontzeptua. Lizentzia eskuratu beharra.

1. Bide publikoetan edo erabilera publikoko guneeetan aparkalekua erreserbatzea, modu iraunkorrean edo mugatuan, zamalanak egiteko, jarduera jakin batzuen mesedetan, jabari publikoaren aprobetxamendu berezia da, okupatzen den gunearen erabilera erkide orokorra mugatzen baitu.

Aurreko paragrafoan definitzen den aparkaleku erreserbak lizentzia behar du, tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu berezia baita.

2. Aurrekoa gorabehera, Udalak, bidezkoztat jotzen badu eta antolaketarako ahalmenak baliatuz, zenbait tokitan eta ordutan aparkatzeko debekua ezar dezake interes publikoko arrazoiengatik, hainbat lokal, jarduera edo sektoreren titularrek erabil ditzaten.

3. Toki zehaztuta ezin izanen dira inola ere ezarri ibilgailua gelditu edo aparkatzeko debekaguneak, erresebatzeak duen xedea bete dezaketenak, jarduera edo lokal jakin batzuen mesedetan.

4. Udalak zehaztuko du seinale horizontala, bidezkoa bada. Sigi-sagako marka eginen da galtzadan, eta toki horretan, oro har, ibilgailuek ezin izanen dute aparkatu, erresebatuta egoteagatik erabilera berezi baterako –betiere ibilgailuak luzaz utzi gabe–.

22. artikulua. Pasabidearen lizentzien gaineko arauen ordezkoko aplikazioa.

Kapitulu honetan araututa ez dagoen orotan, bide publikoetan tokia erresebatzeko lizentziak pasabidearen lizentziarako arauei jarraituko die, betiere aplikagarriak badira bi lizentzia moten ezaugarrien arabera.

23. artikulua. Betebeharrak.

Bide publikoan zamalanetarako tokiaren erreseberba baimentzeko, eskatzaileak honako hauek frogatu beharko ditu: eragiketen kopurua, maiztasuna eta izaera, eta haietan igotzen eta garraiatzen diren zamak.

Bide publikoan tokiaren erreseberba diskrezionalki baimenduko da, eta soilik kasu bakoitzean zehazten den ordutegirako. Ez du eskubide subjektiborik sortuko titularraren alde, eta Udalak eta Alkatetzak aldatzen ahalko dute lizentzia trafikoaren premiek hala eskatzen duten aldiro, espedientea instruitu eta interesdunari entzunaldia eman ondoren.

HIRUGARREN KAPITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

24. artikulua. Arau-haustek.

Tributuen arloko araudian, bide segurtasunarenean edo gainerako araudi administratiboan ezartzen diren arau-haustek eta arlo zibilean edo penalean penalean gerta litezkeen erantzukizunak deusetan galarazi gabe, honela tipifikatzen dira ordenantza honen aurkako arau-haustek:

1. Arau-hauste arinak:

1.1. Pasabidea identifikatzeko plaka egoera onean ez kontserbatzea.

1.2. Sartzeko ateko toki ikusgarri batean ez jartzea pasabidea identifikatzeko plaka.

1.3. Ordenantza hau ez betetzea dakarren eta arau-hauste larritzat edo oso larritzat jotzen ez den beste edozein ekintza edo omisio.

2. Arau-hauste larriak:

2.1. Pasabidearen edo erreserbagunearen parean traba edo oztoporen bat jartzea, garajera sartzeari galarazi edo eragozten duena.

2.2. Zoladura ez berritzea Udalak hala agintzen duenean.

3. Arau-hauste oso larriak:

3.1. Plaka ofiziala ez den beste bat erabiltzea pasabidea seinaleztatzeko. Dagokion zehapena jartzeaz gain, egintza jurisdikzio penalera helarazten ahalko da faltsutze-delituagatik.

3.2. Baimendutako ordutegia ez den beste bat jartzea plakan. Dagokion zehapena jartzeaz gain, egintza jurisdikzio penalera helarazten ahalko da faltsutze-delituagatik.

3.3. Udalari ez jakinaraztea lizentzia emateko oinarri izan ziren inguruabarren aldaketa, lokalaren titulartasunaren aldaketa, handitze bat edo lekualdatze bat.

3.4. Beste titular baten lizentzia (pasabidearena edo erreserbarena) erabiltzea eskualdaketarako baimena eman gabe.

3.5. Udalak agintzen dituen segurtasun neurriak ez betetzea.

3.6. Lokalean ibilgailurik ez gordetzea.

3.7. Pasabidearen aprobetxamendu berezia gauzatzea behar den baimena izan gabe.

25. artikulua. Zehapenak.

1. Honako zehapen hauek ezarriko dira aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteengatik:

–Arau-hauste arinak: 100 eurora bitarteko isuna.

–Arau-hauste larriak: 200 eurora bitarteko isuna.

–Arau-hauste oso larriak. 500 eurora bitarteko isuna.

Arau-hauste larrien eta oso-larrien kasuan, isun ekonomikoaz gain, lizentzia indargabetzen ahalko da.

2. Zehapenak mailakatzeko, egintzaren munta, interes publikoari eragindako kaltea eta arau-hauslearen berrerortze-maila hartuko dira kontuan.

3. Isunak jartzea Alkatetzaren eskumena da, horretarako espedientea instruitu ondoren, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera.

4. Salaketa jakinarazi ondoko hogeit hamar egun naturalean %50 merkeago ordaintzen ahalko dira ordenantza honetako arau-hausteen ondoriozko isunak.

Isuna %50 merkeago ordaintzeak berarekin dakar alegazioak aurkezteari uko egitea eta prozedura ebazpen espresik eman behar izan gabe amaitzea, errekurtsioak paratzen ahalko badira ere.

5. Zehapena jarri arren, araua hautsi duen pertsonari eska dakioke aldatutako egoera lehengoratzeko, baita zehatutako egintzek eragindako kalte-galerak ordaintzeko ere.

Kalte-galerak Udalaren titulartasuneko ondasunetan sortzen direnean, Udalak, zerbitzu tekniko eskudunek tasazioa egin ondoren, konponketaren zenbatekoa zehaztuko du, eta horren berri emanen dio arau-hausleari edo arau-haustearen erantzuleari, ezartzen den epean ordainketa egin dezan.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek ez du ondorio juridikorik izango harik eta testua osorik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost eguneko epea iragan arte, epe hori baitute Estatuko edo Foru Komunitateko Administrazioek toki entitateen egintza edo erabakiak indargabetzen dituen ahalmena erabiltzeko, eta indarrean izanen da harik eta berriaz haren aldaketa edota indargabetzea erabaki arte.

I. ERANSKINA

Plakaren eredua

